

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2023KO EKAINA

Euskal AEko industria-jarduerak % 2,1 egin zuen behera 2023ko ekainean


Ekainera arteko metatutan, industria-produkzioak portaera positiboa mantentzen du, iazko urtearekin alderatuta % 0,2ko hazkundearekin

Euskal AEko industria-produkzioa 2023ko ekainean iazko hil berekoa baino % 2,1 txikiagoa izan da, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Eustatek prestatutako datuen arabera. 2023ko lehen sei hilabeteetan metatutako produkzioa, berriz, aurreko urteko aldi bereko metatua baino % 0,2 handiagoa izan da.

Aurreko hilabetearekin, 2023ko maiatzarekin, alderatuta, Euskal AEko industria-jarduerak % 0,4 egin du gora azken hilabeteen, urtaro-ondorio egokiak zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helmuga ekonomikoaren arabera, *Energiak* % 11,3 egin du behera, urte arteko tartean, 2023ko ekainean. Sektore horretan, energia elektrikoaren produkzioa eta hornikuntza eta petrolio-fintzea sartzen dira.

Tarteko ondasunetako jarduerak, besteak beste, metalurgiak eta produktu metalikoen fabrikazioak, industria kimikoak eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioak, joera negatiboa izan dute eta urte arteko % 2,3ko jaitsiera izan dute produkzioan.

Ekipo-ondasunen produkzioa egonkor mantendu da iazko ekainarekin alderatuta. Ondasun horien artean honako hauek daude: motordun ibilgailuen fabrikazioa, lokomotorren eta trenbide-materialen eraikuntza eta eraikuntza aeronautikoa edo ontzigitza.

Kontsumo-ondasunek, berriz, urte arteko portaera positiboa izan dute 2023ko ekainean; produkzioak % 2,2ko hazkuntza izan du sektorean. Hazkuntza hori *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* portaeraren ondorio izan da, % 6,7 egin baitute gora produkzioan; haietan sartzen dira elikagaien prozesatua eta kontserbazioa; garbitasunerako eta higienarako produktuen fabrikazioa; farmaziako produktuak eta arropen jantzigitza. *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* produkzioak % 15,6 egin behera. Haietan sartzen da, besteak beste, altzari eta etxeko tresnen fabrikazioa.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Ekaina 2023

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	-2,1	0,2	0,4
Araba/Álava	-1,3	1,3	1,9
Bizkaia	-1,3	0,3	0,2
Gipuzkoa	-3,4	-0,7	-0,4
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	2,2	2,2	0,5
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-15,6	-8,3	2,9
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	6,7	4,8	0,1
Ekipo-ondasunak	0,0	2,5	0,1
Bitarteko ondasunak	-2,3	0,6	-0,2
Energia	-11,3	-9,4	4,8

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtametik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldian (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2023ko Abuztuaren 3a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziago batean, Euskal AEko industrian pisu gehien duten sektoreen artean, 2023ko ekainean urte arteko hazkuntza handiena izan duten bakarrak honako hauek dira: *Garraio-materiala*, % 8,2 hazi da; eta *Elikadura industriak, edariak eta tabakoa* % 4,7. Bestalde, urte arteko tartean produkzioaren jaitsiera handiena izan duten sektoreak honako hauek izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 15,2 egin du behera); *Kautxua eta plastikoak* (% 8,5 egin du behera); *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 7,0ko jaitsiera izan du); eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 6,0koa).

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Ekaina 2023

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	4,7
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-7,0
Kaubuxa eta plastikoak	-8,5
Metalurgia eta produktu metalikoak	-6,0
Materiala eta tresna elektrikoak	-1,5
Makineria eta tresneria	-4,4
Garraio-materiala	8,2
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-15,2

(p) Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1) Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2023ko Abuztuaren 3a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Industria-produkzioaren indizeak urte artean izan duen bilakaera 2023ko ekainean negatiboa izan da hiru lurralde historikoetan. Gipuzkoan produkzioak % 3,4ko jaitsiera izan du, eta bai Araban eta bai Bizkaian jaitsiera % 1,3koa izan da aurreko urteko ekainarekin alderatuta.

2023KO EKAINEN BALANTZE METATUA

Urteko lehen sei hilabeteetako metatua, industria-produkzioaren indizeak % 0,2ko hazkuntza izan du, *Ekipo-ondasunen* eta *Kontsumo-ondasunen* hazkuntzaren ondorioz (% 2,5 eta % 2,2, hurrenez hurren). *Tarteko ondasunek*, era berean, bilakaera positiboa metatu dute, eta % 0,6ko hazkuntza izan dute, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta; *Energian*, berriz, urteko lehen sei hilabeteetan metatutako produkzioa % 9,4 jaitsi da.

Lurralde historikoen arabera, 2023ko lehen sei hilabeteetako metatua balantze positiboarekin itxi da: Araban % 1,3 eta Bizkaian % 0,3. Gipuzkoan, berriz, % 0,7ko jaitsiera metatua izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazio-bilketan elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hil honetako indizea laginaren **% 86,63ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62